

## Arabako Arte Ederren Museoak "Fantasia eta arrazoia" inauguratuko du, Goyaren serie handiak lehen aldiz biltzen dituen erakusketa

*Kapritxoak, Gerraren hondamendiak, Tauromakia eta Burugabekeriak 2027ko otsailera arte izango dira ikusgai*

**Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 18a.** Arabako Arte Ederren Museoak "Fantasia eta arrazoia" erakusketa inauguratuko du bihar. Erakusketa horrek lehen aldiz bildu ditu Goyaren (1746-1828) lau estampa serie handiak: *Kapritxoak, Gerraren hondamendiak, Tauromakia* eta *Burugabekeriak*, eta 2027ko otsailera arte egongo da ikusgai.

Lanok 2022an sartu ziren museoaren bilduman, Juan Celaya Letamendi Fundazioak Arabako Foru Aldundiarekin zituen zerga zorrak gauzatan ordaintzeko edo zorrak kitatzeko emanda. Dokumentazio, katalogazio, azterketa eta zaharberitze prozesu arduratsu baten ondoren, estanpak batera aurkezten dira lehen aldiz, eta publikoari Goyaren jainuaren ikuspegi osoa eskaintzen diote.

Serie bakoitzak gizartearen eta giza izaeraren alderdi desberdinak islatzen ditu:

- *Kapritxoak* serieak (1799) ezjakintasuna, superstizioak, zenbait estamenturen bizioak eta nagusikeria kritikatzten ditu.
- *Gerraren hondamendiak* serieak (1810-1815) Independentzia Gerran izandako gatazka belikoko tragediak, indarkeria eta heriotza erakusten ditu.
- *Tauromakia* serieak (1816), begirada kritikoaren eta teknika finaren bidez, zezen jaiaren gaiari heltzen dio, eta jardueraren berezko indarkeria nabarmentzen du.
- *Burugabekeriak* serieak (1815-1824) Goyaren azken etapako sormen askatasuna islatzen du, bai eta anbiguitasuna, gizarte kritika eta giza izaerari buruzko gogoeta ere.

Serieetako hiru, *Kapritxoak, Gerraren hondamendiak* eta *Burugabekeriak*, lehenengo edizioak dira; *Tauromakia*, berriz, bigarren edizioa da. Horri esker, grabatu teknikaren garapenari antzeman dakioko: akuaforte, lehenbizi; urtinta, ondoren, eta punta lehorra azkenik.

Gaur, Museoen Egunean, aurkeztu dute erakusketa Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak eta Sara González de Aspuru Arte Ederren Museoaren arduradunak, eta haren garrantzia nabarmendu dute: "Serie hauek gaur egungo sentsibilitatera hurbiltzen gaituzte, bere garaiaren denbora muga gaindituta. Haren begirada kritiko, independente eta sakonki gizatiarrak gogoeta eta inspirazio iturri izaten jarraitzen du sortzaileentzat eta publiko garaikidearentzat".

Arte Ederren Museoak antolatu duen erakusketak José Manuel Matillaren eta Aldundiko Zaharberrikuntza Zerbitzuaren laguntza izan du. Zaharberrikuntza Zerbitzuaren lana funtsezkoa izan da erakusketa paregabe hau egin ahal izateko.